


VILLA ALMUDENA
C MAILA**MIRAKONTXA PASEALEKUA 13**

Egilea eta data: Luis Aladren, 1894
(lehendik zegoen eraikinaren "eraberritzea")

Deskribapena

Villa Almudena (jatorriz Villa Adelaida zuen izena) Frantziako "hotelaren" ereduari jarraituz Mirakontxako mazelan eraikitako txalet bakartuen azken adibidea da. Eraikinak oinplano trinkoa du, erdiko banatzaile baten inguruko geleskin, eta eskailera nagusiaren eta zerbitzukoaren artean ibilbide bereziekin. Behe oina, oin nagusia eta lehen solairua ditu, gehi oin bat gehiago altxatzen den dorrea. Eraikinaren fatxadek mota horretako jauregitxo neoklasikoen elementu komunak biltzen dituzte; hala nola, balaustraden, kateatuen, azpaduren eta frontoien xehetasunak. Horiek nabarmendu egiten dira pieza landu edo entokatu gisa fabrika hormaren hondo neutroaren gainean. 1942an, estalkia metalezko beste batekin ordezkatzeko eraberritze lanak egin zituzten, altuera areagotuta. Gainera, pabilioi atxikiak eraiki zituzten eta ezponda hondeatu zuten garajeak egiteko. Era berean, atzeko fatxadari atxikitako eskailera erantsi zuten; besteak beste, goiko oineko etxebizitzari sarbide berezia emateko.

Babes erregimena

- 1.- Babes erregimen orokorra:
Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.
- 2.- Berariazko babes erregimena:
 - A.- Babesetik kanpo utzitako fatxadaren elementuak edo zatiak: ez.
 - B.- Fatxadaren elementu edo zati iraunkorrak: adreilu fabrika eta dekorazio entokatuak.
 - C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: jasodurak ez dira onartzen.
 - D.- Nahitaezko lehengoratzak: ez.